

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NKGIk 300.000 euro banatuko ditu 34 toki erakunderi zuzendutako dirulaguntzetan aurten gazteria arloko programak garatzeko

Laguntzen bitartez, gazteek bizitza sozialean duten parte hartze-aktiboa hobetu eta gazteria arloko teknikariak kontratatzea edo lanpostuan mantentzea sustatuko da

Osteguna, 2018.eko ekainak 28

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bitartez, 300.000 euro banatuko ditu [34 toki erakunderi](#) zuzendutako dirulaguntzetan, gazteriaren arloko programak garatzeko. Laguntza hauei esker, gazteria arloko tokiko planen elaborazioari, alde zuzeneko diagnostikoari, gazteekiko topaketa eta elkarrizketen proposamen eta garapenari nahiz gazteria arloko teknikariak kontratatu edo lanpostuan mantentzeari eta Nafarroako gazteek bizitza sozialean duten parte-hartze aktiboa hobetuko duten programen antolaketari lotutako gastuen zati bat finantzatuko da.

Gazteen partaidetza eta udalerrri mailako garapena sustatzeko ekintzetan toki erakundeekin lankidetzan jardutea nahitaezkoa da gazteria arloko politika aurrera ateratzeko, Nafarroa osorako aukeraberdintasunaren printzipioa bene-benetan bete ahal izateko. Horren kariaz, NKGIk laguntza eta lankidetzaren eskaintzen dizkie toki erakundeek gazteria arloan antolatutako ekimen eta proiektuei.

Gazteria arloko teknikariak kontratatu edo lanpostuan mantentzea da Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren lehentasunetako bat. Eragile hauek gazteria arloko politikak eta egitura lideratu eta indartzea eta tokiko gazteak dinamizatzea da helburua. Horregatik da hain garrantzitsua gazteria arloko teknikari bat kontratatzea, "modu eraginkorragoan" lan egin ahal izateko. Horren harira, Berribeiteko eta Azkoiengo udalek teknikariak kontratatu dituzte gazteria arloak garatzeko, laguntza hauetaz baliatuta.

Toki erakundeek zuzendutako dirulaguntza-deialdiaren oinarrien arabera, erakundeek gehienez 35.000 eskuratu ahaliko dituzte dirulaguntza bakoitzeko.

Proiektu aniztasun handia

Toki erakundeek era askotako proiektuak aurkeztu dituzte gai hauen inguruan: gazteriaren prestakuntza eta enplegurako sarbidea; osasunerako hezkuntza; indarkeria, arrazakeria, sexismoa, homofobia eta intolerantziaren prebentzioa; aukeraberdintasuna eta gazteen parte-hartze solidarioa. Horrez gain, tradizioa eta teknologia berriak uztartuz belaunaldien arteko harremanak sustatzen dituzten ekintzak aurkeztu dira, bai eta boluntariorik gabeko, hezkuntzaren eta garapenerako lankidetzaren

bitartez gazteen parte-hartze solidarioa areagotzen duten ekintzak ere. Era berean, gazteen eta gazteria arloko erabakiak hartzeaz arduratzen direnen arteko Elkarrizketa Egituratu bultzatzeko ekintzak proposatu dira, bai eta arte gaztea nahiz talentu gazteak ezagutzera ematea xede duten ekintzak eta bazterketa sozialeko arriskuan dauden edo/eta desgaitasuna duten gazteak partaide dituzten aisialdiko proiektuak ere.

Laguntza hauei esker, zatika finantzatuko dira toki erakundeek 14 eta 30 urte bitarteko gazteen garapen pertsonala nahiz udalerrri mailako parte-hartzea sustatzeko xedez bultzaturiko proiektuak, betiere aukera-berdintasunari eutsiz.